

Zeruak eta lurrak

ZUHAITZAK LOTZEN DITU zeruak eta lurrak. Zutik den haitzak. Ez harrizko haitzak, harkaitzak. Ezta zurkaitzak ere. Bizirik behar du zurak; zuhaitz behar du.

Zuhaitzak zainak ditu lurrean eta zainak zeruan. Sustriak lurrean eta sustriak zeruan. Adarrak lurrean eta adarrak zeruan. Besangak lurrean eta besangak zeruan. Zein da handiagoa, lurpeko zuhaitza edo zerukoa? Zuhaitz helduetan, gehienez, handiena lurreko zatia dela dema egingo nuke. Biak antzekoak direla jo dezagun. Bi oihal josten dituzten albainuak bezalakoak dira zuhaitzak, lurrak eta zeruak harilkatzen. Elkarri ihes egin nahi dioten bi batean helzen dituen kateorrazak.

Zuhaitzak diren tokietan lotura egina dago. Basoak oihanak zuhaitziak eraitsitako tokietan beste haitz batzuk zutitu genituen. Zeruak eta lurrak eta zeruak lotuko zituzten zutikako haitzak: menhirrak, iruinariak, harrespilak, mairu baratzeak, jentil baratzeak... Geure buruak gure otoiak behar zituen kateorrazak.

Zuhaitzen lan horren arrasto ugari dugu. Etxeko atearen hutsartea zaintzeko jartzen ditugun lore-



GEORGE CHERNILEVSKY

Mihura (*Viscum album*) sagarrondoan.

txortatxoak, lizarrak (*Fraxinus excelsior*), elorri zuriak (*Crataegus sp.*), erramuak (*Laurus nobilis*) eta palmak (*Phoenix canariensis*). Etxeari teiltua ematean gailurraren muturrean jartzen zaion lizarra edo erramua; trapalaren, montxorren edo ostrokuaren dei eta eskari. Ateburuan eta sabaian azpitik igarotzeko zintzilikatutako mihura (*Viscum album*). Bizitzara lotzen gaituzten kateorrazak.

Mihuraren gurtza ez da berdantza-bartekoa. Zuhaitzak hostoak

galdu eta soiltzen denean, hor jarraitzen du mihurak, berde asko, bizi-bizi. Harrigarria dena gurgarri. Haritzean hazitakoa omen da auzoko galoentzat onena. Gaitz ugariaren sendabide, eta sutetik babesten duena. Udako solstizioan, egun luzeenetan biltzen zen. Eta lehengo urtekoa sutara. Sanjoan suaren garrantzia. Ez dut ezagutu mihuradun haritzik. Sagarrondoak, udareondoak, ezkiak, sasiakaziak, astigarrak... baina haritzik sekula ez. ■



Landare Berezien 13. Azoka Iturrarango Lorategi Botanikoa

AIA (GIPUZKOA) APIRILAREN 25a eta 26a

Ordutegia: goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara

Sarrera: 4 € (12 urtetik beherakoek doan)

DOAKO AUTOBUS zerbitzua egongo da Zarauzko Euskotren geltokitik eta Lorategi Botanikoaren inguruan moldatutako aparkalekueetatik

www.iturraran.org www.aiapagoeta.com www.parketxesarea.org

TEL: 943 835 389

iturraran@gipuzkoamendizmendi.net

